

Nik, IÑIGO ROLDAN CATALAN jaunak, Oñatiko Udal idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

Honako hau EGIAZTATZEN DUT:

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, **osoko bilkurak, 2023ko abenduaren 14an**, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

2.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: osoko bilkurako ohiko bilkuren 2024ko egutegia onartzea, pertsonal eta barne antolakuntzako informazio batzordean diktaminatua 2023ko abenduaren 4ean.

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Osoko Bilkuraren ohiko bilkuretarako 2024ko egutegia onartzea.

IZASKUN QUEREJETA AGIRREK, Oñatiko Giza Baliabide eta Antolakuntzako teknikariak ziurtatzen du 2023ko abenduaren 4ko datuz Pertsonal eta Barne Antolakuntzako Batzordeak honako **DIKTAMENA** eman zuela:

“Osoko Bilkuraren ohiko bilkuretarako 2024ko egutegia onartzea.

Kontuan hartuta 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen, Osoko Bilkurak hilean behin, gutxienez, ohiko bilkura egingo du, 20.000 biztanletik gorako udalerrietako udalak eta probintziako diputazioak; bi hilean behin, 5.001 eta 20.000 biztanle dituzten udalerrietan; eta hiru hilean behin 5.000 biztanle arteko udalerrietan

Osoko bilkuretarako deialdia, gutxienez, bi egun baliodun lehenago egin behar da, presako bilkura berezietarako izan ezik. Azken kasu honetan, osoko bilkurak berretsi beharko du presako deialdia.

Kontuan hartu behar da Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 84. Artikulua: “Eztabaidarako eta, hala badagokio, bozketarako oinarri gisa erabili behar den gai-zerrendako gai guztien dokumentazioa korporazioko kideen eskura egongo da deialdia egiten den egunetik bertatik korporazioko idazkaritzan. Horrenbestez, korporazioko edozein kidek aztertu ahal izango du, bai eta hura osatzen duten dokumentu zehatzen kopiak lortu ere, baina originalak ezin izango dira dauden lekutik atera.”

2024ko urtarrilaren 25a
2024ko otsailaren 29a
2024ko martxoaren 21a
2024ko apirilaren 25a
2024ko maiatzaren 30a
2024ko ekainaren 27a
2024ko uztailaren 18an
2024ko irailaren 26an
2024ko urriaren 31an
2024ko azaroaren 28an
2024ko abenduaren 19an

Gaia azterturik, osoko bilkurari 2024ko ohiko bilkuren egutegi hau proposatzen zaio:

Lehenengoa.- Goian aipatutako 2024ko ohiko bilkuren egutegia onartzea.

Bigarrena.- Batzorde informatiboaren egutegiak aurreko egutegia kontuan izanda jarriko dira, kontuan harturik Osoko Bilkurako deialdia gutxienez 2 egun baliodun lehenago egin behar dela eta deialdia egiterakoan espedienteak osorik egon behar duela.

Hirugarrena.- Udal teknikariek deialdia egiten den egunetik gai-zerrendako gai guztien dokumentazioa zinegotzien eskura izan beharko dute.”

Gaia aztertutik, eta pertsonal eta barne antolakuntzako batzordearen aldeko irizpenarekin, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Onartzea, Osoko Bilkuraren 2024rako ohiko bilkuren egutegia, xehetasun hauekin:

2024ko urtarrilaren 25a
2024ko otsailaren 29a
2024ko martxoaren 21a
2024ko apirilaren 25a
2024ko maiatzaren 30a
2024ko ekainaren 27a
2024ko uztailaren 18an
2024ko irailaren 26an
2024ko urriaren 31an
2024ko azaroaren 28an
2024ko abenduaren 19an

Bigarrena.- Batzorde informatiboen egutegiak aurreko egutegia kontuan izanda jarriko dira, kontuan harturik Osoko Bilkurako deialdia gutxienez 2 egun baliadun lehenago egin behar dela eta deialdia egiterakoan espedienteak osorik egon behar duela.

Hirugarrena.- Udal teknikariek deialdia egiten den egunetik gai-zerrendako gai guztien dokumentazioa zinegotzien eskura izan beharko dute.

Gaia aztertuta, eta pertsonal eta barne antolakuntza informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamasei bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotzietatik aho batez onartu dute.

Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazita geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikulua arabera.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.

O.E.
ALKATEA

Izaro Elorza Arregui

IDAZKARIA

Iñigo Roldan Catalan

